

## Polonia Etxeberria



**Udalerria:** Eibar (Gipuzkoa)

**Jaiotze-data:** 1865-02-09

**Heriotza data:** 1947-03-14

**Lanbidea:** Maistra

Polonia Etxeberria Eibarko neskontzako lehen eskolako maistra izan zen.

Gazte-gaztetatik izan zuen irakaskuntzarako joera. XIX. mende amaieran emakume batek ikastea ohikoa ez bazen ere, Logroñora joan zen irakasle-ikasketak egitera.

Eibarko neskontzako lehen eskola sortu zenean, Gumersinda Lopez de Gereñu irakaslearen laguntzaile aritu zen. Garai hartan, Eibarren bi maistra zeuden: Gumersinda Lopez de Gereñu eta Petra Ziaran. 1889an Petra hil zenean, Polonia Etxeberriak hartu zituen haren irakaskuntza-ardura guztiak. Bizitzako urte gehienak irakaskuntzari eskaini zizkion. Bere garaiko Eibarko emakume gehienak igaro ziren bere eskolatik.

Eibarko Urki auzoan berari eskainitako kale bat dago.

Iturria: [Wikipedia](#)

Lucia Larreategi San Martin eibartarra, Polonia Etxeberria eta Ibarkurutzeko eskolako beste maistra batzuei buruz hizketan, [Ahotsak.eus](#) proiektuak grabatutako bideoan:

POLONIA  
ETXEBERRIA



---

KALEA